

**IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LEGEA ONARTU IZANAREN 20.  
URTEURRENA OSPATUKO DUEN IRISGARRITASUNA  
SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAN LEHENDAKARIAK EGINGO  
DUEN ADIERAZPENA****DECLARACIÓN DEL LEHENDAKARI EN EL CONSEJO VASCO DE  
ACCESIBILIDAD CONMEMORATIVO DEL 20 ANIVERSARIO DE LA  
APROBACIÓN DE LA LEY DE PROMOCION DE LA ACCESIBILIDAD****2017-12-04 Lehendakaritza 04-12-2017**

Sailburua, Arartekoa, herri agintariok, jaun andreok, egun on.

Gaur Irisgarritasuna sustatzeko Legeak 20 urte betetzen ditu eta Kontseilu honetan Adierazpen hau adostu dugu:

“Ingurune fisikoen eta komunikaziokoen irisgarritasuna, funtsezko faktorea da, herritar guztiek oinarritzotzat jotzen diren eskubideak gozatu ahal izateko.

1998ko abenduaren 4an, Eusko Legebiltzarrak, Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legea onartu zuen. Lege hori aitzindaria izan zen Espainian zein Europan.

Horren bidez, pertsona guzti-guztiak gizartearen zein komunitatearen bizitzan integratzea eta parte hartzea errazten zen; eta, gaur egun ere, halaxe da.

Arau hori, batez ere, egunero beren eskubideak baliatzeko aukera oztopatuta ikusten duten pertsonen dago zuzenduta. Izan ere, oztopo fisikoek edo komunikaziokoek berarien ohiko jarduna eragozten dute.

Esta ley significó el inicio de un camino. Su desarrollo normativo y su aplicación efectiva han supuesto que a partir de entonces en Euskadi los edificios de nueva planta integren ya desde su diseño criterios que los han hecho más accesibles para todos.

También es consecuencia de la Ley la inclusión de un determinado número de viviendas adaptadas a personas en situación de discapacidad en las nuevas promociones de vivienda, tanto privada como pública, duplicando esta última las dotaciones.

A su vez, ha promovido la reconfiguración de multitud de espacios urbanos como entornos accesibles, primero, y amigables después. Esto se ha logrado con la aplicación de los planes de accesibilidad llevados a cabo por los municipios, que han contado durante estos años con el apoyo constante del Gobierno Vasco.

Horretaz gain, Legeak azkenik jarri zuen martxan Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua.

Kontseilu hori erakundeena ez ezik, herritarrena ere bada. Erakundeena da, Eusko Jaurlaritzako sailen, foru-aldundien eta udalen ordezkari izateagatik. Baina partaidetza onartzen duen kontseilua ere bada, Legea onartu baino askoz lehenago desgaitasuna duten pertsonen eskubideak aitortzearen alde lan egiten zuten hainbat kolektiboren presentzia zabala ere baitu.

Legea onartu ondoren ere, horren alde egiten jarraitu dute, urtez urte, kontseilu honetan gogorarazi baitute irisgarritasunaren arloan zer dagoen egin gabe, administrazio publikoen autokonplazentziaren susmorik txikiena ere saihestuta.

Gaur, lege horren hogeigarren urteurrena ospatzen ari gara, baina arauaren betetze-maila handitu beharra dago; izan ere, nahiz eta lege horren garapenean eta ezarpenean zalantzarik gabeko aurrerapenak izan diren, oraindik ere dirauten hutsuneak eta itzalak saihestu behar dira.

Para poder avanzar en la mejora de la calidad de vida de las personas en situación de discapacidad y, sobre todo, para mejorar y garantizar el ejercicio de sus derechos de ciudadanía de todas las personas, es preciso que en la presente legislatura establezcamos las bases de una Estrategia para la Accesibilidad Universal en nuestra Comunidad.

Una hoja de ruta que nos permita conseguir una Euskadi plenamente accesible: a sus espacios urbanos, sus edificios públicos, sus lugares de trabajo, sus viviendas; también a los entornos no físicos que abren los nuevos horizontes de la comunicación digital.

Debemos definir un nuevo concepto de accesibilidad que permita evitar todo tipo de discriminación y garantice el pleno acceso de todas y todos a los espacios, bienes y servicios que gran parte de nuestra sociedad ya disfruta y que se vinculan a la propia vida social.

Se trata, en definitiva, de garantizar derechos que permitan el acceso de toda la ciudadanía al disfrute de todos sus derechos. De garantizar, en palabras de Hanna Arendt, “el derecho a tener derechos”.

La Estrategia Vasca para la Accesibilidad Universal debe desarrollarse de forma transversal, multidisciplinar y multisectorial, porque a todos nos atañe: desde los servicios públicos a la vivienda, pasando por el mundo del trabajo, las comunicaciones y el ocio.

La exigencia de accesibilidad presente en las reclamaciones de las personas con discapacidad supera las fronteras de estos colectivos y se convierte en una demanda universal predicable de todas las personas y aplicable a todos los ámbitos de la vida.

Horren ondorioz, estrategia hau ez da desgaitasuna duten pertsonentzat diseinatu behar, haiekin batera baizik. Gainera, herritarrei aukera ematen die, Euskadikoa gizarte integratzaileagoa eta zuzenagoa bihurtzeko, gizarte modernoagoa eta hobea, alegia.

Euskadi irisgarri eta integratzaile hori lortzeko, eguneroko zailtasun eta oztopoak inork baino hobeto ezagutzen dituzten kolektibo eta elkarteekin batera lan egin beharra dago.

Horrela, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua estrategia horren eragilea izango da. Hala ere, irisgarritasun unibertsalari buruzko herritarren kontzientziarioa ere sustatu beharra dago, ingurune fisikoak behar duen transformazioa ahaztu gabe.

Azkenik, ezinbestekoa da irisgarritasun unibertsalaren erronka gure gizartearen aukeratzat jotzea eta gure egunerokotasunean txertatzea: kalea zeharkatzetik bertatik zientziaren eta teknologia berrien garapenera; etxebizitza diseinatzetik ospitalera, lantokira edo aisaldiko lekura sartu artekoa. berdintasuna, eskubideak eta aukerak izateko baldintzak hobetzeko irisgarritasuna. Edozertarako irisgarritasuna edonorentzat.

Reitero que es imprescindible que aprendamos a ver el reto de la accesibilidad universal como una oportunidad para el conjunto de la sociedad e incluirla en nuestro día a día: desde el simple hecho de cruzar la calle hasta el desarrollo científico y de nuevas tecnologías; desde el diseño de la vivienda hasta el acceso al hospital y al lugar de trabajo o de ocio.

Accesibilidad para mejorar las condiciones de igualdad, en derechos y oportunidad. Accesibilidad a todo para todas las personas.

Eskerrik asko.